


| | | |
|--|-----------------|--|
|  | OÑATIKO UDALA | |
| | Enregistro Data | |
| | 2015 MAR 24 | |
| SARRIA | IRTERA | |
| 580 | | |

OÑATIKO EH BILDU UDAL TALDEAK honako mozioa aurkezten du Oñatiko Euskal Memoria Taldearen izenean:

Oñatiko Udalbatzari:

Martxoaren 24a Egia Jakiteko Eskubidearen Nazioarteko Eguna da, eta hain zuzen ere, aurtengo ekainean beteko da Nafarroako parajerik ederrenetakoan gertatu zen jazoera lazgarriaren 25. urteurrena. Zehazki, 1990eko ekainaren 25ean Irunberriko arroilan gure herriarentzat ahaztezina den zorigaiztoko gertakizun bat suertatu zen: Susana Arregi oñatiarra eta Jon Lizarralde andoaindarra hilda agertu ziren, Guardia Zibilaren ordu askotako setioaren ondoren.

Egün eta leku hartan pasatutakoaren xehetasunak Guardia Zibilak bakarrik dakizki. Garai hartako Barne Ministerioak eman zuen bertsio ofizialak "suicidio colectivo-tzat" jo zuen, ETAko militanteen artean "ohiko praktika" zela adieraziz. Bertsio hau, agian, Espainian baliogarria izango zen; ez, ordea, Euskal Herrian. Gure herria, zoritxarrez, era honetako bertsio ofizialak entzuten oso ohituta baitago.

Bada, hogeita bost urte igaro dira eta oraindik ez da argitu han jazotakoa. Oraindik asko dira argi-ilunak, eta uste dugu beharrezkoa dela zalantza guztiak uxatzea. Gertaera hura, gure herriko historia hurbilaren parte da eta ezin dugu ahaztu. Hala, beharrezkoa iruditzen zaigu memoria egin eta gure ondorengoei han gertatutakoa jakinaraztea. Gainera, gure herrian normalizazio politikoaren eztabaida eta gatazkaren gainditze demokratikoa irekita daudenean, pentsatzen dugu beharrezkoa dela orduko egia osoa jakitea. Bizikidetzarako ezinbesteko urrats bezala ikusten dugu.

Horregatik, eta arestian esan dugunez, martxoaren 24a Egia Jakiteko Eskubidearen Nazioarteko Eguna dela kontuan izanda, Oñatiko udalbatza osatzen duten zinegotziei honako hau eskatzen diegu:

Bere garaian Irunberriko gertakarien gainean emandako bertsio ofizialean argi-ilun ugari daudela kontutan izanik, han gertatutakoa erabat argitzeko, eska diezaietela Guardia Zibilari nahiz Espainiako Gobernuaren Ordezkaritari beharrezkoa den informazioa ematea.

